

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

3926

1/2007 DEKRETUA, apirilaren 17koa, Lehendakaria-rena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua sortzen duena.

Euskal erakundeek, etengabe egin dute zientzia, teknologia, ikerkuntza eta berrikuntzaren aldeko apustu garbia, hainbat proposamen eta ekimen burutu dituzte eta guzti horrek, emaitza garrantzitsuak eman ditu azken bi hamarkadatan.

Apustu hori aintzat hartu eta bultzatzeko, gure ordenamendu juridikoa osatzen duten hainbat lege-arau egin dira. Horrela bada, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak ezartzen du, Euskadiko sistema sanitarioak, garapenerako funtsezko elementu gisa, osasun-ikerkuntzako jarduerak bultzatu beharko dituela (32. artikulua). Ikerkuntzarako egituren diseinu egokia eta hornidura bilatzea izango ditu xede. Bestalde, azaroaren 12ko 8/2004 Legeak, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Industriari buruzkoak, bere helburuen artean ditu teknologia eta berrikuntza sustatzea eta suspertzea eta taldean erabiltzeko azpiegitura teknologikoak sortzea. Arreta berezia jartzen du teknologia eta berrikuntzan (24. artikulua), baita teknologia-erakundeetan ere (25. artikulua). Era berean, otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, Euskal Unibertsitate Sistemarenak, unibertsitateko jardueraren osagai nagusitzat jotzen du ikerkuntza, eta ezagueren eta teknologiaren transferentzian ezinbesteko eginkizuna ematen die euskal unibertsitateei. Legearen arabera, Euskal Herriko Unibertsitatea oinarrizko eragilea da ikerketa, garapen eta berrikuntzarako euskal sistemari (55. artikulua). Horrez gain, Euskadiko Ikerketa Kontseilua sortuko da ikerketa, garapena eta berrikuntza behatu, koordinatu eta sustatzeko (56. artikulua).

Laburbilduz, urteak igaro ahala, Euskadiko Autonomia Erkidegoan garatutako zientzia- eta berrikuntza-politikari esker, Euskadiko zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-eskaintza osatzen duten hainbat erakunde osatutako sistema eraikitzen joan da eta nolabait egituratzen.

Elkarren artean lotuta dauden hainbat eragilek osatzen dute Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema. Hor daude, besteak beste, unibertsitate sistema, Unibertsitateek osatzen dutena (BERC, Birkaintasuna Ikertzeko Oinarrizko Zentroen multzoa bar-

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3926

DECRETO 1/2007, de 17 de abril, del Lehendakari, por el que se crea el Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Desde las instituciones vascas se ha hecho una apuesta mantenida en el tiempo por la ciencia, la tecnología, la investigación y la innovación que ha tenido reflejo en múltiples propuestas e iniciativas y ha dado importantes frutos en las dos últimas décadas.

El impulso y consideración que ha tenido dicha apuesta ha tenido, asimismo, un especial reflejo en varias normas legales que conforman nuestro ordenamiento jurídico. Así, por ejemplo, la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación sanitaria de Euskadi, dispone que el sistema sanitario de Euskadi deberá fomentar las actividades de investigación sanitaria, como elemento fundamental para su progreso (artículo 32), constituyendo un objetivo del mismo la búsqueda del diseño adecuado y dotación de estructuras para la investigación. La Ley 8/2004, de 12 de noviembre, de Industria de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por su parte, contempla entre sus fines la promoción y fomento de la tecnología y de la innovación y la generación de infraestructuras tecnológicas de utilización colectiva, otorgando una especial consideración a la tecnología y la innovación (artículo 24) y a las entidades tecnológicas (artículo 25). Asimismo, la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco, considera la investigación como un elemento constitutivo y central de la actividad universitaria y otorga a las universidades vascas un papel primordial en la transferencia de conocimientos y de tecnología. Esta norma, además de atribuir a la Universidad del País Vasco el carácter de agente básico en el sistema vasco de investigación, desarrollo e innovación (artículo 55), prevé la creación del Consejo Vasco de Investigación para realizar funciones de observación, coordinación y promoción de la investigación, desarrollo e innovación (artículo 56).

Con el paso de los años, en definitiva, la política científica y de innovación desarrollada en la Comunidad Autónoma de Euskadi ha ido construyendo, de una manera más o menos estructurada, un sistema conformado por las diferentes entidades que componen la oferta científico-tecnológica y de innovación del País.

El Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación está compuesto por una serie de agentes interrelacionados entre sí. El sistema universitario, formado por las Universidades (que integra, a un conjunto de Centros Básicos de Investigación de Excelencia, BERC); en

ne hartzen du); Korporazio teknologikoak eragile nagusitzat dituen teknologia-garapeneko eta berrikuntzako azpi sistema; Kooperatiba-Ikerketarako Zentroak, EAerako interes estrategikoa duten eremuetako gaitasunak eta interesak biltzen dituztenak; euskal enpresak biltzen dituen enpresa- eta gizarte-sistema, eta enpresetako I+D Unitateak. Eta azkenik, zientzia, teknologia eta berrikuntza finkatzen duten eragileak: parke teknologikoak eta enpresa-zentroak, zein berrikuntza bermatzeko erakundeak edota ikertzaileak erakartzeko zuzenean laguntzen duten Ikerbasque bezalako erakundeak.

Ildo honi jarraituz, legealdi honetarako Eusko Jaurlaritzak dituen programako konpromisoen artean dago, teknologia, berrikuntza eta kalitatearen alorrean, I+D+i-n ahalegin handiagoa egitea, pixkanaka Europarekin bat egiteko mailara hurbilduko gaituena. Garrantzi berezia izango du eskaintza teknologiko integrala eta bikaina osatzeak Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistemako eragileen artean, espezializazioaren eta lankidetzaren publiko eta pribatuaren bidez.

Era berean, Lehendakariak bere inbestidura-ekitaldiko diskurtsoan, arreta berezia eman zion oinarrizko ikerketa sustatzeari unibertsitatearen esparruan. Europarekin bateratze teknologikoa lortzeko erronkaren eremuan berretsi zuen ikerketa eta berrikuntzarekiko konpromiso publikoa, eta berrikuntza eta garapen teknologikoko egitamiuei zuzendutako urteko gastu publikoa nabarmen areagotuko zela iragarri zuen, Barne Produktu Gordinaren hazkunde nominalaren baino hazkunde bilakaera handiagoarekin, alegia.

Berrikuntzarekiko konpromisoa berretsi egin zuen Lehendakariak politika orokorreko azken saioan eginitako diskurtsoan. Bere gain hartu zuen, halaber, legealdi honetan hura bultzatzeko konpromisoa eta aitzindaritzaren hainbat ekimenen bitartez. Haien artean, egungo kudeaketa-egiturak berrikusi, erabakitzeko eta koordinazio politikorako organoak sortu eta politika- eta programa-jarduera berriak modu eraginkorragoan kudeatzeko tresna berriak sortu.

Bestalde, Berrikuntzarako Euskal Agentzia aurreikusten duen 2006-2009 Enpresa Lehiakortasunaren eta Gizarte Berrikuntzaren Plana burutu eta garatzeak, eta finantzazio publiko eta pribatuarekin baliabide ugari mugiaraztea ahalbidetuz, 2010 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana laster martxan jartzeak, aurrekontu ahalegin altuarekin, jauzi kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsua ekarriko dute gure herriaren bigarren eraldaketa ekonomikoaren bidean. Eta zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza bihurtuko dira Euskadiko lehiakortasunaren eragilerik garrantzitsuenak.

segundo lugar, el subsistema de desarrollo tecnológico e innovación, cuyo agentes principales son las Corporaciones Tecnológicas; y los Centros de Investigación Cooperativa, que aúnan capacidades e intereses en ámbitos de interés estratégico para la CAPV. El sistema empresarial y social, en el que se encuentran las empresas vascas, y las Unidades de I+D empresarial. Finalmente, también los agentes que dan apoyo a la ciencia, la tecnología y la innovación: desde los parques tecnológicos y los centros de empresas a las organizaciones de soporte a la innovación o las entidades que apoyan de forma directa la atracción de investigadores como Ikerbasque.

En esta misma línea, los compromisos programáticos del Gobierno Vasco para la presente legislatura incluyen, en el ámbito de la tecnología la innovación y la calidad, la realización de un mayor esfuerzo en I+D+i que nos acerque progresivamente al nivel de convergencia con Europa, concediendo una especial importancia a la necesidad de completar una oferta tecnológica integral y de excelencia, a través de la especialización y la colaboración público-privada, entre los agentes del Sistema Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación.

Asimismo, el Lehendakari, en su discurso de investidura, otorgó una especial atención al fomento de la investigación básica en el ámbito universitario, confirmando, en el marco del reto de lograr la convergencia tecnológica con Europa, el compromiso público con la investigación y la innovación y anunciando un importante crecimiento anual del gasto público destinado a programas de innovación y desarrollo tecnológico, a un ritmo superior al crecimiento nominal del Producto Interior Bruto.

Este compromiso con la innovación fue ratificado por el Lehendakari en su discurso con ocasión del último debate de política general celebrado donde, igualmente, se comprometió personalmente a asumir el impulso y el liderazgo del mismo en la presente legislatura a través de diferentes iniciativas y, entre ellas, la revisión de las estructuras de gestión actuales, creando órganos de decisión y de coordinación política e incorporando nuevos instrumentos para gestionar de forma más eficaz las nuevas políticas y programas de actuación.

Por otro lado, la ejecución y desarrollo del Plan de Competitividad Empresarial e Innovación Social 2006-2009, que prevé la creación de la Agencia Vasca de Innovación, así como la próxima puesta en marcha del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación 2010, que va a posibilitar una importante movilización de recursos entre la financiación pública y privada, van a suponer un importante salto cualitativo y cuantitativo, con un elevado esfuerzo presupuestario, hacia una segunda transformación económica en nuestro País donde la ciencia, la tecnología, la investigación y la innovación pasen a constituir los principales motores de la competitividad de Euskadi.

Testuinguru horretan, oraingo zientzia, teknologia eta berrikuntzarako eragileek eraldaketa horren benetako sustatzaile bihurtu beharko dute Erakunde publikoek dagokie eragile ezberdinek egindako lanaren aitzindari izatea, haien arteko osagarritasun-maila egokia mantendu, bakoitzak bere gaitasunak garatzeko eta euskal gizartearen eta enpresen eskaera teknologikoa asetzeko besteko eskaintza integrala eman ahal izateko, kalitatea eta bikaintasuna bermatuta duen eskaintza, alegia.

Xede horiek betetzeko sortuko da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan goreneko organo izateko zientzia-, teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-politikaren aitzindaritzan, baita partehartze eta aholkularitzan ere. Horrela bada, Autonomia Erkidegoko organo gorena bihurtzen da eta, besteak beste, honako hauek izango dira, bere egitekoak: ikerketa, garapena eta berrikuntza behatu, koordinatu eta sustatu; gai horietako politika publikoen oinarritzko lerro estrategikoak zehaztu eta eremu horretako jardueretan lortu nahi diren helburu estrategikoak finkatu; jarduera horiek babesteko dituen finantza-markoa. oro har, ezarri; Euskal Herriarentzat duten interes estrategikoetatik lehenasuneko eremuak eta ikerketa-gaiak zehaztu, edo zientzia eta teknologiaren euskal sistemari bultzada handiagoa emateko balioko duten interes estrategikoak giturak sustatu.

Etapari berri honetan, zientzia, teknologia eta berrikuntzarako eragileek ahalegin osagarri handiagoa beharko duten egin, epe ertain eta luzean, Euskal Herriaren gizarte-eta ekonomia-garapenerako eremu estrategikoetan ikerketa programak garatzeko. Horretarako, sakondu egin beharko da koordinazioan, lankidetzan eta sareko lanean, baliabideak espezializatu eta hobeto erabili beharko dira beharrezko masa kritikoak lortzeko. Sakondu egin beharko da baita bikaintasun mailaren garapenean eta Europako zein munduko beste eragile batzuekiko lankidetzaren harremanetan. Guzti hori, teknologia sortzeko, transferitzeko eta ustiatzeko prozesuak bizkortzeko.

Ildo beretik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarean sartuta dauden zientzia eta teknologia eragileek (hura arautzen duen urriaren leko 221/2002 Dekretuan zehaztutakoaren arabera) konpromiso irmoa hartuko dute Europan, 2007-2013 tartean ikerketa finantzatzeko Europako Batasunaren tresna garrantzitsuenetako den Ikerketa eta Teknologia-Garapenerako VII Esparru Programan aktiboki parte hartuko dutela eta aparteko ahalegina egingo dutela marko komunitario berriak eskaintzen dizkien aukerak aprobetxatzeko.

Hurrengo zazpi urterako 50.000 milioi euroko aurrekontua duen Esparru Programa berriak aurreikusitako

En dicho contexto, los agentes científico-tecnológicos y de innovación existentes deben convertirse en los verdaderos impulsores de dicha transformación, correspondiendo, por su parte, a las instituciones públicas la función de liderar la labor realizada por los distintos agentes, manteniendo al mismo tiempo un adecuado nivel de complementariedad entre los mismos que les permita desarrollar su capacidad y garantizar un nivel de calidad y excelencia suficiente para conformar una oferta integral que permita satisfacer la demanda tecnológica de las empresas y de la propia sociedad vasca.

A tales fines, por tanto, responde la creación del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación como el órgano superior de participación, asesoramiento y liderazgo de la política científica, tecnológica, de investigación y de innovación en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euzkadi. En este mismo sentido, se configura como el máximo órgano de la Comunidad Autónoma a quien le corresponderá, entre otras funciones de observación, coordinación y promoción de la investigación, el desarrollo y la innovación, la definición de las líneas estratégicas básicas de las políticas públicas en estas materias y la fijación de los objetivos estratégicos que pretenden alcanzarse con las actuaciones en dicho ámbito, el establecimiento, de forma global, del marco financiero de apoyo a dichas actuaciones, la determinación de las áreas prioritarias o materias de investigación preferente por su interés estratégico para el País Vasco o la promoción de infraestructuras científico-tecnológicas de interés estratégico que permitan dotar de un mayor impulso al sistema científico y tecnológico vasco.

En esta nueva etapa, los agentes científico-tecnológicos y de innovación deberán realizar, de forma complementaria, un mayor esfuerzo para desarrollar programas de investigación en ámbitos estratégicos para el desarrollo económico y social del País Vasco en el medio y largo plazo. Para ello será necesario profundizar en la cultura de la coordinación, la colaboración y del trabajo en red, en la especialización y la optimización de recursos para alcanzar las masas críticas necesarias y en el desarrollo del nivel de excelencia y de las relaciones de cooperación con otros agentes del entorno europeo y mundial para acelerar procesos de generación, transferencia y explotación de tecnología.

En el mismo sentido, los agentes científico-tecnológicos integrados en la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación, en los términos definidos en el Decreto 221/2002, de 1 de octubre, que procede a su ordenación, deberán adquirir un compromiso firme de participación activa en el VII Programa Marco de Investigación y Desarrollo Tecnológico, principal instrumento de la Unión Europea para financiar la investigación en Europa durante el período 2007-2013, y realizar un esfuerzo suplementario por aprovechar las oportunidades que el nuevo marco comunitario les ofrece.

Los nuevos instrumentos previstos por el nuevo Programa Marco para los próximos siete años, con un pre-

tako tresnak finantza-baliabideen iturri garrantzitsua izateaz gain, aukera ematen dute Ikerketarako Europako Espazioak definitutako dimentsio berrian Euskadi erabat txertatzeko.

Jakintzaren eta berrikuntzaren herrialdea bihurtzeko erronka handia du Euskadik, gure lehiakortasuna bermatzeko eta enpleguaren kalitatea eta egonkortasuna bermatzeko. Guzti hori lortzeko, Eusko Jaurlaritzak martxan jarritako beste hainbat proiekturen artean, ezinbesteko tresna da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua.

Azaldutakoa kontuan izanik, Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 30eko 7/1981 Legeak 8.c) artikuluan eman zaizkidan ahalmenez baliatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak eztabaidatu ondoren 2007ko apirilaren 17ko bilera, honako hau

#### XEDATU DUT:

##### 1. artikulua.— Xedea.

Deletu honen xedea da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua sortzea, eta haren osara, eginkizunak eta funtzionamendu-araubidea arautzea.

##### 2. artikulua.— Izaera.

1.— Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua gorenko organoa da Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, zientzia-, teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-politikaren aitzindaritzan, baita partehartze eta aholkularitzan ere.

2.— Ildo berean, ikerketa, garapena eta berrikuntza behatu, koordinatu eta sustatzeko lankidetzako organo goren da.

##### 3. artikulua.— Atxikipena eta egoitza.

1.— Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua Lehendakaritzara atxikita egongo da, baina ez da bere egitura organikoan sartuko. Vitoria-Gasteizen izango du egoitza Lehendakaritza gunean.

2.— Hala ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak Autonomia Erkidegoko beste edozein tokitan egin ahal izango ditu bilerak.

##### 4. artikulua.— Kideak.

1.— Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren kide dira:

a) Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria, lehendakaria izango dena.

b) Ogasun eta Herri-Administrazioako sailburua.

c) Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua.

supuesto de más de 50.000 millones de euros, suponen una importante fuente de recursos financieros y, además, abren la posibilidad de insertar plenamente a Euskadi en la nueva dimensión definida por el Espacio Europeo de la Investigación.

Euskadi afronta el desafío de convertirse en un país del conocimiento y la innovación para garantizar nuestra competitividad y mejorar la calidad y estabilidad del empleo y la creación del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, entre otros proyectos puestos en marcha por el Gobierno Vasco, constituye una importante herramienta para conseguirlo.

Por lo expuesto, en virtud de las facultades que me confiere el artículo 8.c) de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 17 de abril de 2007,

#### DISPONGO:

##### Artículo 1.— Objeto.

El objeto del presente Decreto es la creación del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación y la regulación de su composición, funciones y régimen de funcionamiento.

##### Artículo 2.— Naturaleza.

1.— El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación es el órgano superior de participación, asesoramiento y liderazgo de la política científica, tecnológica, de investigación y de innovación en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.— En el mismo sentido, constituye el máximo órgano de cooperación, observación, coordinación y promoción de la investigación, el desarrollo y la innovación.

##### Artículo 3.— Adscripción y sede.

1.— El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación estará adscrito a la Presidencia del Gobierno-Lehendakaritza, aunque no se integrará en su estructura orgánica, y tendrá su sede en las dependencias de la Lehendakaritza en Vitoria-Gasteiz.

2.— No obstante, el Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación podrá celebrar sesiones en cualquier otro lugar del territorio de la Comunidad Autónoma.

##### Artículo 4.— Composición.

1.— Son miembros del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación:

a) El Lehendakari del Gobierno Vasco, que ostentará su presidencia.

b) La persona titular del Departamento de Hacienda y Administración Pública.

c) La persona titular del Departamento de Industria, Comercio y Turismo.

- d) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua.
- e) Osasun sailburua.
- f) Autonomia Erkidegoko hiru Lurralde Historikoe-tako Foru Aldundietako hiru Diputatu Nagusiak.
- g) Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateeta-ko errektoreak.
- h) Zientziarako Euskal Fundazioaren (Ikerbasque) eta Berrikuntzarako Euskal Agentziaren arduradun nagusiak.
- i) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordez-karia.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluaren kide duten karguarengatik direnek, automatikoki utziko diote kide izateari kide izendatuak izateko kontuan izandako ezaugarri hori galtzen dute-nean.

3.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluaren lehendakaritzak baimendu ahal izan-go du bileretan, edo haien zati batzuetan, eztabaidatze-koak diren gaietan adituak egotea. Aditu horiek, ba-karrik eurei dagokien gai edo gaietan izango dute hitza eta ez dute boto eskubiderik izango.

#### 5. artikulua.– Eginkizunak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluaren eginkizunak dira:

a) Zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza gaietan politika publikoen oinarritzko lerro strategi-koak zehaztea eta eremu horretako jardueretan lortu na-hi diren helburu estrategikoak finkatzea.

b) Zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza ba-bestuko dituen finantza-markoaren zifra orokorrak ezar-tzea, eta batez ere, gai horietako jarduerak finantzatze-ko baliabideak aztertu eta aintzat hartzea.

c) Aholkularitzako Batzorde Zientifikoa entzun on-doren, Euskal Herriarentzat interes estrategikoa duten lehentasunezko eremu edo ikerketa-gaiak zehaztea.

d) Zientzia eta teknologiaren euskal sistemari bul-tzada handiagoa emateko balioko duten interes estra-tegikoko zientzia-eta teknologia-egiturak sustatzea.

e) Neurriak proposatzea honako hauek bultzatzeko: zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzarako eus-kal sistemako eragileek koordinatuta jardun dezaten; euskal proiektuek Europako ikerketa programetan eta zientzia- eta teknologia sareetan parte har dezaten, uni-bertsitateko ikerketa eta produkzio sistema uztartzeko, eta prestakuntzako eta ikertzaileak erakartzeko politi-ka maila orotan bideratzeko.

d) La persona titular del Departamento de Educa-ción, Universidades e Investigación.

e) La persona titular del Departamento de Sanidad.

f) Las y los tres Diputadas y Diputados Generales de las Diputaciones Forales de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma.

g) El rector o rectora de cada una de las universida-des pertenecientes al Sistema Universitario Vasco.

h) La persona responsable de la Fundación Vasca para la Ciencia (Ikerbasque) y de la Agencia Vasca de In-novación.

i) La persona Comisionada para la Ciencia, la Tecno-logía y la Innovación.

2.– Las personas miembros del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación que lo fueran por ra-zón de su cargo cesarán automáticamente con la pér-di-da de la condición en virtud de la cual fueron nombra-das.

3.– La Presidencia del Pleno del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación podrá autorizar la pre-sencia en sus sesiones, o en parte de ellas, de personas especializadas en los temas que fueren objeto de trata-miento en las mismas, que en todo caso actuarán con voz y sin voto en el tema o temas que fundamentan su presencia.

#### Artículo 5.– Funciones.

1.– Al Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e In-novación le corresponderán las siguientes funciones:

a) La definición de las líneas estratégicas básicas de las políticas públicas en materia de ciencia, tecnología, investigación e innovación y la fijación de los objetivos estratégicos que pretenden alcanzarse con las actuacio-nes en dicho ámbito.

b) El establecimiento de las cifras globales del mar-co financiero de apoyo a la ciencia, la tecnología, la in-vestigación y la innovación y, en particular, el análisis y consideración de los recursos destinados a la financia-ción de las actuaciones en dichas materias.

c) La determinación, previa consulta al Comité Cien-tífico Asesor, de las áreas prioritarias o materias de in-vestigación preferente por su interés estratégico para el País Vasco.

d) La promoción de infraestructuras científico-tec-nológicas de interés estratégico que permitan dotar de un mayor impulso al sistema científico y tecnológico vasco.

e) La propuesta de medidas que favorezcan la actua-ción coordinada de los agentes del sistema vasco de cien-cia, tecnología, investigación e innovación, la partici-pación de los proyectos vascos en los programas de in-vestigación europeos y en las redes científico-tecnoló-gicas europeas y la vinculación entre la investigación universitaria y el sistema productivo, y orienten la po-lítica de formación y captación de investigadores en to-dos sus niveles.

f) Teknologia eraldatzeko eta bateratzeko prozesuan ezarritako helburuen aurrerapen eta garapen mailari buruzko urteko balantzea egitea, zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza gaietan politika publikoak ebaluatzeko.

g) Zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzako euskal sistemako behatzaileen sarea koordinatzea. Behatzaile horien zeregina da Euskal Herriko zientzia eta teknologiaren egoera aztertu eta bildutako informazioa sistemako gainontzeko agenteei zabaltzea, teknologiatik eskaintza-erakundeak aztertzea, ezaguerak, esperientziak eta praktika hobekak elkartrukatzeko bidea zabaltzea, eta etorkizuneko joerei buruzko aurreikuspen lan egitea.

2.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak aztertuko ditu, halaber, gai horietan euskal erakunde publikoek abiaraziko dituzten ekimen eta planifikazio tresnak.

**6. artikulua.**– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkarria.

1.– Lehendakariak, bere eskuduntzak betetzeko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkarri baten laguntza izango du. Ordezkarri hori, Kontseiluko kide eta idazkari izango da.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkarria Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak izendatuko du.

3.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkarriari dagokio Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua bultzatzea eta haren jardunbidea koordinatzea, eta bereziki:

a) Urteko Jardute-Plana eta Jardueren Urteko Memoria egitea eta Kontseiluari aurkeztea.

b) Bere eginkizunak betetzerakoan burututako jardueren jarraipena egitea.

c) Kontseiluak finkatutako esparruan burutu beharreko jardueretarako beharrezkoak diren konpromisoak eta itunak itundu eta izenpetzea.

d) Lehendakariak ordezkaritza utzita, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundearen ordezkaritzan aritzea zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza arloko erakunde, organo edo organizazio publiko eta pribatuetan.

e) Kontseiluak eta/edo lehendakariak haren esku utz ditzakeen bestelako eskuduntzak.

4.– Halaber, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren idazkari den aldetik, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordezkarriari dagokio honako eginkizunak:

a) Kontseiluko lehendakariak aginduta, bilkuren deialdia egitea.

f) La aprobación de un balance anual del grado de avance y desarrollo de los objetivos marcados en el proceso de transformación y de convergencia tecnológica, con el fin de evaluar las políticas públicas en materia de ciencia, tecnología, investigación e innovación.

g) La coordinación de la red de observadores del sistema vasco de ciencia, tecnología, investigación e innovación dedicados a recabar datos sobre la situación científica y tecnológica del País Vasco, divulgar la información recabada al resto de agentes del sistema, analizar la oferta y demanda tecnológica, propiciar el intercambio de conocimientos, experiencias y mejores prácticas y realizar una labor de prospectiva de las tendencias a futuro.

2.– Asimismo, también serán sometidas a la consideración del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación las iniciativas e instrumentos de planificación que, en estas materias, sean abordadas por las instituciones públicas vascas.

**Artículo 6.**– Persona Comisionada para la Ciencia, la Tecnología y la Innovación.

1.– Para el ejercicio de sus atribuciones, el Lehendakari estará asistido por una persona Comisionada para la Ciencia, la Tecnología y la Innovación que formará parte del Consejo y que actuará con funciones de secretaria del mismo.

2.– La persona Comisionada para la Ciencia, la Tecnología y la Innovación será designada por el Lehendakari del Gobierno Vasco.

3.– Corresponde a la persona Comisionada para la Ciencia, la Tecnología y la Innovación impulsar y coordinar el funcionamiento del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación y en particular:

a) Elaborar y presentar al Consejo el Plan Anual de Actuación y la Memoria Anual de Actividades.

b) Realizar el seguimiento de las actuaciones que se ejecuten en el ejercicio de sus funciones.

c) Concertar y firmar los compromisos y convenios necesarios para la realización de sus actuaciones en el marco que determine el Consejo.

d) Ejercer la representación institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi por delegación del Lehendakari en instituciones, órganos u organizaciones públicas y privadas en el campo de la ciencia, la tecnología, la investigación y la innovación.

e) Las demás atribuciones que le puedan delegar el Consejo y/o su Presidencia.

4.– Asimismo, la persona Comisionada para la Ciencia, la Tecnología y la Innovación, como Secretaria del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación, tiene atribuidas las siguientes funciones:

a) Efectuar la convocatoria de las sesiones por orden de la presidencia del Consejo.

b) Kontseiluko kideen eskura izatea eguneko gai-zerrendan sartutako gaiei buruzko agiri guztiak.

c) Osoko bilkuretara joatea, bilkuretako aktak egi-tea eta fede-emaile gisa esku hartu, Osoko Bilkurak har-tutako erabakiak eta aktak egiaztatuz.

d) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluak aztertuko dituen gaien inguruko txoste-nak, proposamenak edo dokumentuak jasotzea, antola-tzea eta prestatzea.

e) Kontseiluak hartutako akordioak betearaztea, ho-rretarako beharrezko jarraibideak ezarrita.

f) Kontseiluaren lehendakaritzak agindutako kudea-keta eta koordinazioko gainerako ekintzak edota idaz-kari izaerari dagozkionak.

5.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Ordez-kariak Idazkaritza teknikoa izango du, eta Dekretu ho-nek ematen dizkion eginkizunak edota Kontseiluak eta bere lehendakariak eman dakizkion eginkizunak gara-tzeko beharrezko laguntza emango dio.

#### 7. *artikulua*.– Antolakuntza eta funtzionamendua.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluak Osoko Bilkuran jardungo du. Bertan, Batzorde Bereziak eratu ahal izango dira.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluak Aholku-Batzorde Zientifikoa izango du.

3.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluaren Batzorde Bereziek eta Aholku-Ba-tzorde Zientifikoak Kontseiluko Idazkaritzaren lagun-tza izango dute.

#### 8. *artikulua*.– Batzorde Bereziak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Eus-kal Kontseiluaren barruan izaera teknikoa duten Ba-tzorde Bereziak eratu ahal izango dira. Emango zaiz-kien egitekoen arabera, Osoko Bilkurak baimendu eta izendatuko ditu.

2.– Osoko Bilkurari laguntza emango diote Batzor-de Berezi horiek, zientzia, teknologia, ikerketa eta ber-rikuntzarako euskal sistemarekin lotutako alde espe-zifikoak landuko dituzte. Horretarako, gai jakinei bu-ruzko lanak, azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo dituzte, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko.

3.– Honako hauek osatuko dituzte Batzorde Bere-ziak: Euskal Administrazio Publikoetako eta Euskal Unibertsitate Sistematan dauden unibertsitateetako ki-deek, zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzaren arloko erakunde publiko eta pribatuetako kideek eta Batzorde horiek osatzeko egoki jotzen diren aitortuta-ko ospe handiko profesionalak.

b) Mantener a disposición de las y los miembros del Consejo cuantos documentos se refieran a los asuntos incluidos en el orden del día.

c) Asistir a las sesiones del Pleno, levantar acta de las mismas y actuar de fedataria, certificando las actas y los acuerdos adoptados por el Pleno.

d) La recepción, ordenación y preparación de todos los asuntos, informes, propuestas o documentos que se sometan a la consideración del Consejo Vasco de Cien-cia, Tecnología e Innovación.

e) La ejecución de los acuerdos adoptados por el Con-sejo, disponiendo las instrucciones oportunas.

f) Cuantos actos de gestión y coordinación le sean encomendados por la presidencia del Consejo o sean in-herentes a su condición de Secretaria del mismo.

5.– La persona Comisionada para la Ciencia, la Tec-nología y la Innovación contará con una Secretaría Téc-nica que le facilitará la asistencia necesaria para el de-sarrollo de las funciones atribuidas por el presente De-creto o que pudiera atribuirle el Consejo y/o su Presi-dencia.

#### *Artículo 7*.– Organización y funcionamiento.

1.– El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Inno-vación actúa en Pleno. En su seno, podrán crearse Co-misiones Especiales.

2.– El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Inno-vación contará con un Comité Científico Asesor.

3.– Las Comisiones Especiales y el Comité Científi-co Asesor del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación contarán con el apoyo de la Secretaría del Consejo.

#### *Artículo 8*.– Comisiones Especiales.

1.– En el seno del Consejo Vasco de Ciencia, Tecno-logía e Innovación podrán constituirse Comisiones Es-peciales de carácter técnico que, en función de los co-metidos que se les asignen, serán autorizadas y desig-nadas por el Pleno.

2.– Estas Comisiones Especiales tendrán por objeto auxiliar al Pleno y abordar aspectos específicos relacio-nados con el sistema vasco de ciencia, tecnología, in-vestigación e innovación, mediante la realización de tra-bajos, estudios, informes y propuestas sobre materias concretas que sirvan de base para su debate y aproba-ción en el Pleno.

3.– Las Comisiones Especiales podrán integrarse por miembros de las Administraciones Públicas vascas, de las universidades pertenecientes al Sistema Universita-rio Vasco y de entidades públicas y privadas en el cam-po de la ciencia, la tecnología, la investigación y la in-novación, así como por aquellas personas profesionales de reconocido prestigio que se consideren más idóneas para su constitución.

**9. artikulua.**– Aholku-Batzorde Zientifikoa.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren baitan Aholku-Batzorde Zientifikoa izaera egonkorreko organoa da, zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntzarako euskal sistemaren beharri-zanen eta lehenetasunen inguruan aholkuak eman eta proposamenak egiteko.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Aholku-Batzorde Zientifikoa, zientzia, teknologia, ikerketa eta berrikuntza arloan nazioartean aitortutako ospea duten profesionalak osatuko dute. Kopurua zehaztu gabe dago, baina ez dira izango hamar baino gehiago eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakariak izendatuko ditu.

3.– Lau urteko agintaldia izango dute Aholku-Batzorde Zientifikoko kideak. Hura amaitutakoan, berriz ere izendatu ahal izango dituzte.

**10. artikulua.**– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren bilerak.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua, gutxienez urtean bitan bilduko da. Hala-ber, bere Lehendakariak egoki irizten dioenean eta kideen gehiengoak idatziz hala eskatuta ere bilduko da.

**11. artikulua.**– Gastuak.

1.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kide izateagatik ez da ordainsaririk jasoko.

2.– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Aholku-Batzorde Zientifikoko kideek, batzordeetan parte hartzearen ondoriozko gastuei aurre egiteko dietak eta konpentsazioak jasotzeko eskubidea izango dute, indarreko araudiak eta Gobernu Kontseiluak ezarritakoaren arabera.

3.– Lehendakariak urtero esleitu ditu bere aurrekontuetan Ordezkararen eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren Idazkaritzako gastuei aurre egiteko partidak.

**AZKEN XEDAPENAK**

**Lehenengoa.**– Jaurlaritzaren Lehendakariaren egitura organikoari buruzko Dekretuaren aldaketa.

Berriz idatziko da Jaurlaritzaren Lehendakariaren egitura organikoa eta egitekoak ezartzen dituen urriaren 3ko 187/2006 Dekretuaren 5. artikuluko 2. paragrafoa, eta honela geratuko da:

«2.– Honako hauek ere Lehendakariari atxikitzen zaizkio:

**Artículo 9.**– Comité Científico Asesor.

1.– El Comité Científico Asesor se configura en el seno del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación como un órgano de naturaleza permanente para el asesoramiento y propuesta sobre las necesidades y las prioridades del sistema vasco de ciencia, tecnología, investigación e innovación.

2.– El Comité Científico Asesor del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación estará compuesto por un número indeterminado, no superior a diez, de personas profesionales de reconocido prestigio internacional en el ámbito de la ciencia, la tecnología, la investigación y la innovación, nombradas por el Lehendakari del Gobierno Vasco.

3.– El mandato de las y los miembros del Comité Científico Asesor tendrá una duración de cuatro años, finalizado el cual podrán ser designados de nuevo para otro mandato.

**Artículo 10.**– De las reuniones del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación.

El Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación se reunirá con carácter ordinario al menos dos veces al año. También podrá reunirse a iniciativa de la Presidencia siempre que lo considere oportuno y a petición por escrito de la mayoría de sus miembros.

**Artículo 11.**– Gastos.

1.– La pertenencia al Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación no dará lugar a retribución alguna.

2.– Las personas que componen el Comité Científico Asesor del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación tendrán derecho a percibir las dietas y compensaciones por los gastos en que incurrieren como consecuencia de su participación en los mismos, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente y lo que disponga el Consejo de Gobierno.

3.– La Presidencia del Gobierno-Lehendakari-tza consignará anualmente, dentro de sus presupuestos, las partidas correspondientes para atender los gastos de la persona Comisionada y de la Secretaría del Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación.

**DISPOSICIONES FINALES**

**Primera.**– Modificación del Decreto de estructura orgánica de la Presidencia del Gobierno-Lehendakari-tza.

Se da nueva redacción al apartado 2 del artículo 5 del Decreto 187/2006, de 3 de octubre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional de la Presidencia del Gobierno-Lehendakari-tza, quedando redactado como sigue:

«2.– Se adscriben, asimismo, a Lehendakari-tza:

– Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Aholku Batzordea (apirilaren 11ko 234/1995 Dekretua).

– Euskal Etxeen Errolda (uztailaren 28ko 318/1994 Dekretua eta maiatzaren 14ko 106/1996 Dekretua).

– Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (apirilaren 17ko 1/2007 Dekretua, Lehendakariarena).»

**Bigarrena.**– Araubide osagarria.

Dekretu honetan ezarri ez diren prozedurazko gaietan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean zehaztutakoa edo bere ordezkio xedapenak ezartzen duena izango da ezargarri.

**Hirugarrena.**– Aurrekontu aldaketak.

Dekretu honetan ezarritakoa betetzeko, Ogasun eta Herri Administrazio sailak beharrezkoak diren aurrekontu-eragiketarako egingo ditu.

**Laugarrena.**– Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2007ko apirilaren 17an.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

3927

AGINDUA, 2007ko ekainaren 22koa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, 2007-2008 ikasturtean unibertsitateko ikasketa-zerbitzuetatik ordaindu beharreko prezioak finkatzen dituen.

Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 81.3.b) puntuak dioenez (apirilaren 12ko 4/2007 Lege Organikoak aldatu egin zuen lege hori), titulu ofizialak lortzeko diren ikasketen kasuan, autonomia erkidegoak finkatuko ditu zerbitzu akademikoetako dagozkien prezio publikoak, beti ere Unibertsitate Koordinatze Kontseiluak ezarritako mugen barruan. Aipatutako Lege Organiko horren 5. xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, Unibertsitatea Koordina-

– Consejo Asesor de Relaciones con las Colectividades Vascas (Decreto 234/1995, de 11 de abril).

– Registro de Centros Vascos-Euskal Etxeak (Decreto 318/1994, de 28 de julio, y Decreto 106/1996, de 14 de mayo).

– Consejo Vasco de Ciencia, Tecnología e Innovación (Decreto 1/2007, de 17 de abril, del Lehendakari).»

**Segunda.**– Supletoriedad.

En todas las materias de orden procedimental no contempladas en el presente Decreto se estará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, o disposición que la sustituya.

**Tercera.**– Modificaciones presupuestarias.

El Departamento de Hacienda y Administración Pública realizará las operaciones presupuestarias necesarias para dar cumplimiento a lo dispuesto en el presente Decreto.

**Cuarta.**– Entrada en vigor.

El presente Decreto entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 17 de abril de 2007.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

3927

ORDEN de 22 de junio de 2007, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se fijan los precios a satisfacer por la prestación de servicios académicos universitarios en el año académico 2007-2008.

El artículo 81.3.b) de la Ley Orgánica 6/2001, de 21 de diciembre (modificada por la Ley Orgánica 4/2007, de 12 de abril) de Universidades, establece que los precios públicos por servicios académicos, en el caso de estudios conducentes a la obtención de títulos de carácter oficial, serán fijados por la Comunidad Autónoma dentro de los límites que establezca el Consejo de Coordinación Universitaria. La Disposición Adicional Quinta de la citada Ley Orgánica 4/2007 establece